

Kultura

'Ludi honen bestaldez' liburua
elkarlanean plazaratu dute > 15



Iketzetik San Eloyra martxa antolatu dute beharginek zapaturako > 3

San Eloy taldeko bi
enpresetako 210 langileren
postuak arriskuan daude

Goizeko 10:00etan irtengo dira Abadiñoako Iketz enpresatik, eta San Eloytik pasatu eta gero, 12:00etan Elorrioko plazara heltzea aurreikusi dute. Enpresa biak konkurtso egoeran daude, eta inbertsoreren bat noiz agertuko zain daude egoera kon-

pontzeko. Abadiñoako Udalean Iketz eta San Eloyren inguruko mozioa eztabaidatu zuten atzoko ezohiko bilkuran. Beharginek langileen lanpostuen alde eta itxieraren aurka egiteko eskatzen diote udalari. Elorrioren ere aurkeztu dute mozioa.

Larrialdiak gainezka

Duela bi urtetik hona lan karga handitu egin zaiela salatu dute Landakoko anbulatorioko beharginek, eta sinadurak batzeari ekin diote > 3



BAQUÉ
Café

GASTRONOMIAREN MOTORRA
DIREN ERAGILEEN LAGUNTZAILE
AKTIBOAK GARA

basque
culinary
center

Slow Food

C.I.P.F.P.
CAMINO DE SANTIAGO

SUKATALDE

AIAA

Escuela Superior de Hostelería
Artsuanda

Escuela de Hostelería - Ostalantza eskola

Durango > 3

Fundifis eraikina zigitatu dute,
barruan zeudenak bota ostean

Zaldibar > 4

Zergak batzeko akordioa sinatu
du udalak Aldundiagaz

Elorrio > 6

Landa eremuen datu basea
sortu dute larrialdietarako

Berriz > 4

Jai afrikarra antolatu dute
Hiltegixen zapaturako

Herririk herri

> DURANGO

Larrialdietako beharginen kezka eta protestak

Lanez gainezka dabilzala eta baldintzak ez direla egokiak esan dute; sinadurak batzen hasi dira

> MARCEL ONAINDIA

Haserre eta kezkatuta. Horrela dabilzala Landakoko larrialdi zerbitzuetako beharginak. Azken urteetan lan karga handitu egin zaie, baina lan taldeagaz ez da gauza bera gertatu. Ondorioz, lanez gainezka dabilzala esan dute. Horregatik eta beste hainbat arrazoiengatik, euren lan baldintzak ez direla egokiak diote: “Guk ez dugu kaxekin lan egiten, pertsonekin baizik”. Osakidetza-ko larrialdien zuzendaritzari sarritan helarazi dizkiete euren eskaerak, baina sortutako 380 arazoren aktak ere. Erantzunik jasotzen ez dutela ikusita, protesta egitea erabaki dute. Sinadurak batzen hasi dira.

Azken urteetan lan karga handitu egin zaie, baina lan taldeagaz ez da gauza bera gertatu

Duela urte bitik hona igarri dute lanaren igoera. “Egoera izugarri estresagarriak dira. Urrun gaude ospitaleetatik, eta larrialdi kasu asko etortzen dira, gehiegi”. Euren ustez, egoera sozialak ere ekarri du gorakada hori, neurri batean: biztanleen zahartzea, lanean baimena ez eskatzeagatik arratsaldez joatea...

Txanda bakoitzeko, mediku bi, erizain bat, jagole bat eta gidari bat egoten dira. Durangaldeko etxeetako abisuak ere hartzen dituzte, eta irteera askotan erizainagaz joaten da medikua. Horrela, Landakon ez da erizainik geratzen gaixoak artatzeko. Azken hilabeteetan, kasu hauetan, erreserban dauden erizain batzuei deitzen diete bertaratzeko. Denbora eskatzen du horrek: “Osasunean denboragaz jokatzeko da. Nolabaiteko konponketa da, ez da erantzun zuzena”. Errefortzu hau irailan jazotako egoera baten ostean ipini zuen zuzendaritzak; Berrizen gertatutako istripu batera irten zuten, eta erizain barik zeudela, gaixo larri bi eto-



Landakoko larrialdietako irudi bat, zerbitzuetik kanpoko une batean.

ri zitzazkien. Bati bihotzekoak eman zion, itzarongelan.

Asteburuetan behargin gehiago egoten da, baina gaixoen kopurua ere asko igotzen ei da. “Bat-taz beste 160 etortzen dira medikuarengana, eta beste 70 erizainarengana”. Zapatuetako beste zentroetako pediatria zerbitzuak ere bertara aldatu zituzten, baina pertsonala gehitu barik.

Anbulantzia, Gernikatik

Lanerako baldintzek eragin handiagoa izaten dute kasu larrietan. Gainera, ambulantzia badau-

Asteburuetan behargin gehiago egoten da, baina gaixoen kopurua ere asko igotzen ei da

kate, baina medikalizatu Gernikatik etorri behar izaten da. “40 minutu horiek estuasun handiz bizitzen ditugu”. Aldarrikapenekin jarraituz, irteeratarako auto berri bat eskatu dute, oraingoa zaharra da-eta: “Aurrekoan ez

zuen igo Mendiolako aldats bat”. Instalazioak txikiak direla esan dute, baina antza denez, obrak egitea onartu du zuzendaritzak.

Lan taldea ona dela diote, baina egoerak zailtasunak sortzen dituela: “Ondorio zuzenak dauka zerbitzua jasotzen dutenengan, herritarrengan. Kolaborazioa eskatzen dugu, zerbitzu publikoan bat eskaini ahal izateko”. Zentroan batzen dituzte sinadurak, larrialdietako ordutegian.

Legebiltzarrean, EH Bilduk osasun sailburuaren agerraldia eskatu du, gaiaz galdetzeko.

“EAJk informazioa ezkutatu” arren, berba egiteko prest dago EH Bildu

Bilduk eta Aralarrek esan dute EAJk ez diela aurrekontuko soberakinaren gaineko daturik eman; jeltzaleekin batzarra egiteko eskaera erregistratu dute



Bildu eta Aralarreko zinegotziak, eguaztenean, prentsaurrekoa eman ostean.

> M. O.

EAJk erantzukizuna eskatu zien publikoki gainerako alderdiei martxoaren 1ean, 2013rako aurrekontu zirriborroa aurkezterakoan. “Erantzukizuna eskatu bai, baina deitu ere ez digute egin”, esan zuen Dani Maeztuk eguaztenean (Aralar), EH Bilduko zinegotzietako emandako prentsaurrekoan. Gobernu taldeak, inbertsiorik ezin egin eta aurreko urteetako soberakina erabiltzea proposatu zuen proiektuak garatzeko; tartean, San Faustoko zentro zibikoa eta Urki-Hegoalde saihesbidea. Bada, EH Bilduko zinegotzietako adierazi dute euren ez dietela soberakinaren inguruko datu-

rik eman. Eider Uribe (Bildu) irakurri zuen oharra euskaraz: “Ezin daiteke onartu EAJk informazioa ezkutatzea”. Euren arabera, soberakinako zazpi milioi euroz gainera, beste bost milioi ere eskuratuko ditu udalak lurzoru publikoaren salmentatik. “EAJk informazio hori ezkutatu gura badu, guri iruzur egiten saiatzen dabilelako da. Ez guri bakarrik, baita herritar guztiei ere”.

Kritika hori egin ostean, azaldu zuten prest daudela EAJgaz berba egiteko. Jeltzaleekin batzarra egiteko eskaera erregistratu zuten udal-txan, eguaztenean bertan. Baina, “hausnarketa sakona”

“EAJren proposamena kontuak koardatzeko eragiketa aritmetiko hutsa da”

egiteko exijitu dute. Izan ere, euren iritziz, “EAJren proposamena kontuak koardatzeko eragiketa aritmetiko hutsa da”. Esan dute Durangoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorra berraztertu behar dela, eta hori herritarren partaidetza sustatuko duen dinamika batez egiteko eskatu dute.

Negoiaziorako gaiak

Bestelakoak ere badauzkate negoiaziorako. Soberakina, ekipamenduak herritarren beharrezko arabera egiteko erabili gura dute. Gainera, Landakoko igerilekuan egondako gainkostuagatik erantzukizuna exijitzeko eskatu dute. Lurzoru ondarea etxebizitza politketara osorik bideratzea, zergatan irizpide sozialak aplikatzea, zabor organikoa batzeko sistema adostea, energia berri-erregeneratzaileko erabilera publiko izatea ere proposatu dute.



Fundifes enpresako eraikin zaharra zigilatu du udaltzaingoak.

Fundifeseko eraikina zigilatu dute, barruan zeudenak bota ostean

Hainbat lagun okupa legez bizi ziren Fundifesen; zigilatuta, segurtasuna lortu gura du udalak, "ez dituelako bertan bizitzeko baldintza egokiak betetzen"

> **M. O.**

Udaltzainek Tabira kalean abandonatuta dagoen Fundifes enpresako eraikina zigilatu zuten martxoaren 27an. Hainbat lagun okupa legez bizi ziren, eta horiek irtenarazi zituzten lehenik. Segurtasuna lortu gura du udalak, "instalazioak ez dituelako bertan bizitzeko baldintza egokiak betetzen". Bertan izandako gertaeren ondorioz hartu dute erabakia. Iaz, maiatzean, emakume baten

aurkako sexu eraso egin zuten, eta 2011ko ekainean beste andra bat hil zen bertan; geroago, haren bikotekidea atxilotu zuten, hilketa egotzita.

Eraikina botatzea ere jabeek dagokie, baina, udalak arriskua ikusten badu, tramiteekin hasiko da

Antza denez, jabeena behargin ohiak zen zigilatze-ko ardura. "Eraikinaren jabeek ez zuten erantzunik eman, kasuari zegokion espediente administratiboa hasi zen Hirigintza batzordean". Eraikina botatzea ere jabeek dagokie, baina udalak arriskua ikusten badu, tramiteekin hasiko da, esan dutenez. Udalak esan du haizeagaz jausten zebiltzan xaflak kendu dituela momentuz.

Trenbideko pasabideak premiazkoak direla dio PSEK

> **JONE GUENETXEA**

Durango zatitzen duen trenbidean hiru pasabide zabaltzea "premiazkoa" dela azaldu du Pilar Rios zinegotzi sozialistak prentsa oharrean: "Lau hilabete igaro dira gobernu taldeari (EAJ) hiru pasabide zabaltzeko dagozkion gestioak egin ditzala eskatu genionetik". Riosek azaldu duenez, Aitziber Irigoras alkateak erantzun die Euskal Trenbide Saretik (ETS) ez dela erantzunik jaso. "Horrek erakusten du zer utzikeria eta kudeaketa txarra duen EAJk gai honetan, udalean zein ETSn".

Sozialistek diotenez, herriaren zatiketa mantentzen ari dira horretarako beharrezanik barrik, eta arriskutsua izan daitekeela azpimarratu dute. "Gazte askok salto eginda pasatzen dituzte hesiak, eta baten batzuek, bidea laburtzearen, trenbidea apurtu dute lekuren batean". Udaleko brigadak behin-behineko obra bat egiteko eskatzen du PSE-EEK. Hiru pasabide horiek Uribarri eta Ibaizabal kaleen artean, Pedro Pablo Astarloa eta Ibaizabal kaleen artean, eta Fauste Bekoa-Untzillatz eta Fauste kaleen artean daude.

> **DURANGALDEA**

Iketzetik San Eloyra martxa antolatu dute langileek

10:00etan Abadiñoko Iketz enpresan irtengo dira, eta 12:00etarako Elorriora heltzea aurreikusi dute

> **JONE GUENETXEA**

Iketz eta San Eloy enpresetako langileek mobilizazioekin jarraitzen dute. Biharko, martxa deitu dute Iketzetik San Eloyra. Goizeko 10:00etan Iketz enpresan hasiko da (Abadiñon), eta 12:00ak aldera, San Eloytik pasatu eta gero, Elorrioko plazan bukatzea aurreikusi dute. Enpresa biak konkurto egotzen daude, eta 210 langileren lanpostuak arriskuan daudela azaldu dute LAB eta ESK sindikatuek. Une honetan inbertsoreren baten bila dabilta, enpresa biak zabalik mantendu ahal izateko.

Atzo ezohiko bilkura egin zuten Abadiñoko Udalean Iketz eta San Eloy enpresen inguruan

Mozioa Abadiñon

Atzo arratsaldean Anbotoren edizioa zarratu eta gero, ezohiko bilkura egin zuten Abadiñoko Udalean Iketz eta San Eloy enpresen inguruko mozioa eztabaidatzeko helburuagaz. Dokumentu horretan, bi enpresetako langileen ordezkariak Abadiñoko Udalarari publikoki posizionatu dadin eskatzen diote, "langileen lanpostuen alde eta itxieraren kontra". Udaleko balkoian pankarta bat jartzea proposatzen dute. Horrez gainera, Abadiñoko Udalarari "dagozkion gestioak" egiteko eskatzen diote itxiera gertatu ez dadin. Irtenbideak bilatzeko helburuagaz, udalak bere jardunbidea zehazteko ere eskatzen dute.

Elorrioko Udalean ere Iketz eta San Eloyren inguruko antzeko mozio bat eztabaidatzea gura dute sindikatuek.



Martxoaren 23an Elorrioren egindako manifestazioa eta prentsaurrekoa.

BETSÄIDE Montevideo, 9 - Durango
AUTO-ESKOLA Tel.: 94 681 91 64

Gidabaimena lortzeko aukerarik onena!

Teorikoko ikastaro intentsiboak:
 Astelehenetik ostiralera, goizez edo arratsaldez.

Testak interneten bidez egiteko aukera

Finantzaketa aukera:
www.easycarnet.com-en bidez

PLAN APROBETXAGARRI ETA ATSEGINA UDARAKO!

Betsaide UDA IKASTAROK Ekainaren 26tik uztailaren 24ra
 astelehenetik ostegunera

Erezena, 3	Summer camp	Errefortzu klaseak	Ingeles intentsiboak
Matiena-Abadiño	09:30-12:30	10:00-11:00 / 11:00-12:00	2-3 orduko klaseak
Tel.: 637 416 438	6-12 urte	Gehienez 5 pertsona	

Malatzak 30 izena emateko azken eguna: betsaidels@gmail.com

katerin ardoak
iñaki uribe
saltsan

Eguneko eta asteburuetako menuak - Delikatessena - Ardoteka

KURUTZIAGA 40 48200 DURANGO T/F 946 200 427

saltsan.com

hitz
 liburudenda

artekalea 14,
 durango (bizkaia)

info@hitzliburudenda.com
 946 810 776

> ZALDIBAR

Zergak betearazteko hitzarmena sinatu dute udalak eta Aldundiak

Udaleko lau alderdiek aho batez bozkatu zuten hitzarmena lotzearen alde



Aldundiak eskura daukan norbanakoen diru kontuen informazioa baliatuko dute zergak betearazteko.

> ITSASO ESTEBAN

Udalak batzen dituen zuzeneko zergak modu eraginkorragoan betearazteko helburuagaz lotu du Zaldibarko Udalak Bizkaiko Aldundiagaz lankidetzaz hitzarmena. Udaleko lau alderdiek bozkatu zuten hitzarmen hori sinatzearen alde, martxo-ko ohiko udalbatzarrean.

Arantza Baigorri alkateak udalbatzar horretan azaldu zuenez, "Ogasuneko datuak ere eskura daukanez, zergak betearazteko udalak baino eskumen handiagoa dauka Aldundiak". "Batuetan udalak ez du izaten ordaintzen ez dutenak harrapatze modurik, eta uste dugu oso beharrezkoa dela hitzarmen hau".

Dagozkien zergak ordaintzen ez dituzten herritar eta enpresei dagokiena ordaintzeko eskatzeko eskutitza bidali

ohi du udalak, eta zenbaitetan zerga epeka ordaintzea eskatzen dute herritarrek. Beste kasu batzuetan, baina, dagozkien zergak ordaindu barik "desagertzen" dira zordunak.

Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, 2011 urtean, esaterako, Zaldibarko Udalak ez zituen jaso zerga bidez zegozkion 30.000 euro.

Aldundiak eskura daukan norbanakoen diru kontuen informazioa baliatuta, udalak lokalizatu ezin dituen norbanako horiei dagokien zerga ordainaraziko die Bizkaiko Aldundiak. Kobratzea lortzen duen kopuru bakoitzaren %1 jasoko du horren truke.

Asteon bidali dute Zaldibarko alkateak sinaturiko hitzarmenaren alea Bizkaiko Aldundira, eta gutxi barru izango da indarrean.

> BERRIZ

Elkar ezagutzeko jaia antolatu dute Hiltegixek eta herriko afrikarrek

Biharko jai afrikarrean 'Thibulen' bazkaria egingo dute elkarrekin, eta musika ugari egingo da

> AMAIA UGALDE

Senegal eta Kamerundik etortako lagunekin batera, biharko egun osoko egitaraua antolatu dute Berrizko gaztetxeak. Elkar ezagutzen ez zutela eta hartu-emanak hasteko gogoagaz sortu da jai afrikarra egiteko ideia. Egunari hasiera emateko, 12:00etan batuko dira Hiltegixen.

Hasteko *Thibulen* izeneko bazkaria zelan egin erakutsiko dute afrikarrek. Arroza eta arraina daukan platera da *Thibulen*. Guztien artean jakia prestatzen ibili eta gero, 14:00ak aldera hasiko dira bazkaltzen. Bazkalostean, Tatan magoa izango dute, eta digestioa egin eta gero, musikaren ordua izango da: tinbalek girotutako poteoari ekingo diote 18:30ean.

Gaueko 21:00etan luntxa izango dute gaztetxean, eta gero,

22:30ean, Durangaldeko hainbat lagunek parte hartzen duen Batu taldeak doinu afrikarrak eskainiko ditu kontzertuan. Gauerditik aurrera ere giro ona egingo da; musika afrikarra ipiniko du DJ batek.

Egun osorako txartela 10 euroan ipini dute salgai, Fonda eta Guzur tabernetan.

Batukada ikastaroa

Bestalde, batukada ikastaroa hasi dute duela gutxi, Hiltegixen. Aste batean barikuetan, eta hurrengoan domeketan batzen dira, 18:00etan. Parte hartu gura duenak gaur edo datorren domekan, apirilaren 21ean, izango du hurrengo aukera.

Tailerrean parte hartzeko bost euro ordaindu behar dira, eta Gaztetxetik azaldu dutenez, atek zabalik daude.

> ABADIÑO

Saibigaineko bataila gogoan hartuko dute domekan

> ITSASO ESTEBAN

Apirilaren 14an egingo dute Urkiolatik Saibigainera irteera. Orain 76 urteko frankisten altxamenduaren ostean, 1937ko udaberrian Saibigain mendian izandako batailak oroitu dituzte.

Ordu eta erdiko ibilaldian egingo dituzten geldialdietan mendi horretan gertatutako berri emango du Alberto Sardon Gerediaga Elkarteko kideak.

Urkiolatik abiatuko dute ibilbidea, 11:00etan, eta autobusa ipini du antolakuntzak bertaraino joateko: Abadiñon eta Durangon batuko dituzte izena eman duten lagunak.

Kultura sustatzeko helburuz, iaz eratu zuten Barrizten Elkartek antolatu du irteera, bigarren. Aurreratu dutenez, Traña-Matienako jai egitarauko ekintzak antolatzen ere parte hartuko dute kultur elkarte horretakoek.

> ATXONDO

Marixurriek 12 urtetik gorakoei zuzendutako talde berria sortu du

Ekaineko jaietarako ekintzak prestatzen ari dira; umorezko antzezlan bat sortu gura dute

> JOSEBA DERTEANO

Ludoteka kudeatzeko eta herriko aisialdi programa diseinatzeko ardura Marixurriek aisialdi taldeari esleitu dio udalak, datozen urte bietarako. Aisialdi taldeak 12 urtera arteko gaztetxeekin lan egiten zuen orain arte: 3-6 eta 6-12 urte bitarteko talde banarekin. Aurten, 12 eta 16 urte arteko talde berria sortu dute. Talde berri horretarako, 18 gaztetxok eman dute izena dagoeneko (Abadiñokoak eta Elorri-

Apirilaren 27an seigarren urteurrena ospatuko du Marixurriek, eta ekintzak prestatzen dabilta

koak tartean). Hileko bigarren eta laugarren asteburuetan batzartzen dira gaztetxean, eta ekainaren amaieran izango diren herriko jai nagusietarako ekintzak lantzen dabilta azken asteetan. Futbito txapelketa bat egiteko asmoa dute, bai eta umorezko antzezlan bat ere, bestek beste. Talde berriagaz gazteei euren kezka, nahiak eta sormena plazaratu eta garatu ahal izateko espazioa eskaintzea dute helburu.

Urtero legez, Marixurriek askotariko ekimenak garatuko ditu urtean zehar: gaztetxoen ludoteka, udaleku finkoak eta irekiak, kulturarteko jaialdiari begirako ekintzak...

Bestalde, seigarren urteurrena ospatuko dute apirilaren 27an, eta egun horretarako ekintzak prestatzen dabilta.

ALBERDI

DURANGO

Bertako okela
Aurretiaz
prestatutako
janariak

Askatasun etorbidea 1 - Durango
Telefona: 94 681 76 58

UDAN OLGETAN barikua 2013

NORI ZUZENDUA: 3-10 urte bitartekoei
2003-2009 urte bitartean jaiotakoei

DATAK: ekainaren 24tik uztailaren 24ra
(asteka izena emateko aukera)

ORDUTEGIA: astelehenetik ostiralera 9:00etatik 13:30era
(astean behin egun osoko irteera 16:30era arte)

IZEN EMATEA: Berbaroren bulegoan apirilaren 15etik maiatzaren 3ra bitartean.
*Oharra: maiatzaren 3a baino lehenago plazak betetzen badira, izen-ematea itxi egingo da

INFORMAZIO GEHIAGO:
Berbaro Elkartea: pinondo plaza I. I. Solairua/946202540/gazteak@berbaro.com
www.berbaro.com

BERBARO
elkartea

> ELORRIO**Zaintzaile diren amamentzako tailerra Emakume Eskolan****> M. O.**

Ilobak zaintzen dituzten amamen bizi-kalitatea hobetzea. Helburu horri begira jardungo dute Emakume Eskolan eskainiko duten ikastaro batean. Garpertsonala sustatuko dute, eta amama zaintzailearen rola inguruko hausnarketa kritikoa ere bultzatuko dute, esan dutenez. Maiatzaren 7an hasiko da ikastaroa.

Hilaren 22an ekingo diote Eskolako lehenengo ikastaroari. Elikadura eta autoestimua landuko dituzte saioan. Beste tailer bat ere garatuko dute maiatzaren 3an eta 4an, maitasuna eta bikote hartu-emanak ikuspegi kritiko batetik aztertuko. Bestalde, apirilaren 29an berbaldia eman go du Mari Luz Esteban antropologoak, Iturri kultur etxean.

Eskolan izena emateko aukera dago dagoeneko, udaletxean zein udaleko webgunearen bidez.

Landa eremuen datu basea, larrialdietan errazago topatzeko

Sistema berri batez, larrialdi bat gertatzean, ingurua zelakoa den jakingo dute larrialdi taldeek

> MARKEL ONAINDIA

Aurrerantzean, larrialdi kasu bat gertatzen bada, sistema berri batek larrialdi hori jazo den ingurunea identifikatu eta zelakoa den sarbidea, biderearen zabalera...- esango die suhiltzaile, ambulanzia edo polizia. Horretarako, udalak, landa eremuen datu basea egin du, eta GIS sistema geografikoaren

Udalak, landa eremuen datu basea egin du, eta GIS sistemaren bidez lokalizatuko ditu

bidez lokalizatuko ditu. Horren helburua azaldu du Ana Otadui alkateak: "Larrialdi taldeek inolako denborarik galdu gabe, laguntza zehazki non behar den topatu dezaten". 2013ko aurrekontuetan zehaztu zuen udalak proiektu hori, eta datozen egunetan esleituko du.

Gainera, landa eremuagaz lotutako beste proiektu bat ere esleituko du: auzo eta baserrien seinaleztapena. Bide-seinaleetan, auzoaren izena eta bertako baserriena agertuko dira. Herriko plazetan ere ipiniko dituzte panelak. Ideia horregaz, herriko zein kanpokoan joan-etorriak erraztu gura dituzte. Proiektu biak batuta, 30.000 euro inguru inbertituko dituzte.



Auzoetako informazioa batuko dute larrialdi taldeen kudeaketarako.

> MAÑARIA**Umeentzako tailerrak egingo dituzte hilaren 20an**

Hiru eta zortzi urte bitartekoek parte hartuko dute

> M. O.

Apirilaren 20rako, haurrentzako tailerrak antolatu ditu Mañariko Udalak. Liburuaren Nazioarteko Eguna ospatuko da hilaren 23an, eta data horren harira egingo dituzte tailerrak. Gurago izan dute asteburuan egin, ume gehiagok parte hartu ahal izateko. Txo-txongiloak egin eta ipuinak sortuko dituzte, azaldu dutenez. Hiru eta zortzi urte bitarteko umeek parte hartu ahal izango dute tailerretan.

Zornotzan dagoen Orue Eskolako ikasleek gidatuko dituzte tailerrak, eta eurak izango dira umeen begirale. Udaleko ordezkariak azaldu dutenez, ikastetxe horrek eratzten ditu tailerrak, bere ikasleek praktikak egiteko

aprobetxatzeko. Hainbat herri-tan egiten dituzte tailerrak.

Arratsaldeko 18:00etatik 20:00etara batuko dira Mañariko umeak tailerretan. Apuntatu gura duenak udaletxera jo behar du goizeko 07:00etatik eta 11:30era, edota hango zenbakira deitu behar du: 94 681 89 98.

Kultur etxe berria

Kultur etxe berriaren inaugurazio ekitaldia egingo dute hilaren 26an, 18:30ean. Errekondo erakinean egongo da kultur etxea, hainbat zerbitzu emateko. Frontoetik bertara aldatu dute liburutegia, lehen solairura. Behean tabernak jarraituko du, eta bigarren solairua tailerrak egiteko erabiliko dute, besteak beste.

> OTXANDIO**Autozaintzan sakontzeko ikastaroa eskainiko dute****> J.D.**

Menpekotasuna duten senideak zaintzen jarduten duten lagunei zuzendutako doako ikastaroa eskainiko du udalak. Ikastaroa maiatzetik ekainera izango da, eta ordu biko sei saio osatuko dute. Apirilaren 22ra arte eman daiteke izena udaletxean. Ikastaro hau udalak aurten abiatu duen Nagusi Prozesuaren barruko ekimena da. Kurtsoa Sasoia Tercera Edad S.L.k emango du.

Ikastaroa zaintzaile ez-profesionalei zuzenduta dago, eta zaintzaileen bizi kalitatea hobetzeko zein jardunbide horretan sortu daitezkeen arrisku faktoreak detektatzen laguntzeko gakoak eskaintzea du helburu. Horrela, lehenengo saio bietan, besteak beste, zaintzan jarduteko planifikazio egoki baten garrantziaz ariko dira. Ondorengo hiru saioetan zaintzaileen bizi kalitatean eragiten duten faktoreak izango dituzte berba: atsedean eta lo beharrak, antsietatea, pentsamendu negatiboen kontrola, isolamendua, hartu-eman sozialak...

Azken saioan, zaintza plan indibiduala antolatuzko estrategiak landuko dituzte; norbera zelari zaindu, ondoren besteak zaintzeko.

> IURRETA**PPk bilkura eta batzordeetara ez joatea egotzidior alkateari****> J.G. / A.B.**

Iñaki Totorikaguena alkatea martxoaren 26ko eta apirilaren 5eko osoko bilkuretara, eta apirilaren 2ko urgentziazko batzordera ez joan izana kritikatu du Nacho Toca PPko zinegotziak: "Ez dakigu arrazoia lana eta familia bateragarri egiteko, edo, alderdikide eta lehendakari Urkulluk lege, oporrak hartzeko giza beharra den". Hala ere, Toca "lekuz kanpoko" eta "bidebako" deritzo udal arduradun nagusiak "pisuzko arrazoirik gabe" horietara huts egitea. Toca jokaera are larriagoa jo du alkateak "lan handia" duenean zazpi milioi euroko aurrekontua ateratzeko. "Tama-lez, EA.Jk kontuen luzapenera garamatza, ez baitu babesik lortu, ez eta beste alderdien zuzenketarik onartu ere".

"Zentzubako berbak"

"Harrituta" hartu ditut adierazpenok Totorikaguena alkateak. "Zentzubako berbak" direla uste du, eta lana eta familia bateragarri egiteko eskubideagaz "fribolizatzea" leporatu dio Tocari. Alkatearen esanetan, "hor daude azken bost urteetako konpromisoa eta lana, eta, ez dut uste ezertan justifikatu behar dudunik".

570 kiloko harria mugituko dute 'Isidro' eta 'Turko' astoek**> AITZIBER BASAURI**

'Isidro' eta 'Turko'. Iurreta eta Berriatuako kintopeko asto biren arteko desafioa antolatu dute domekarako Munitibarren. 'Isidro'k Iurretako gazteen eskutik (Partiliku elkarte) jardungo du, 570 kiloko harria mugitu guran. 'Turko'k, berriz, Alberto Plaza (Aizerdi elkarte) izango du gidari. Desafioa 18:00etan hasiko da.

Partiliku elkarteak gazteen eskutik mugituko du harria 'Isidro' astoak

1.200 euro bakoitzak

Asto bakoitzak 30 minutuko saioa egin beharko du, eta laguntzaile libre bi izango ditu. Bizkaiko Federazioak kontrolatuko du desafio hori, eta ordu bi lehenago pisatuko dituzte astoak, antolatzaileek azaldu duten moduan.

Astoak 350 kilo izan beharko ditu 570 kiloko harria mugitzeko. Hori baino pisu handiagoa badu, gainkarga jarriko diote harriari, argitu dutenez. Bestalde, sari moduan 1.200 euro jarriko ditu talde bakoitzak.



**Berdin dio norantz,
baina elkarrekin
goaz hegaz...**

> DURANGALDEA ASTEON**Xaboigintza ikastaroa antolatu du Berbalagunek**

Elorrioko Abizari euskaltegian xaboa egiten ikasteko tailerra egingo dute eguenean, apirilak 18, arratsaldeko 18:30ean. Ikastaroan euskara ikasleek eta euskaldun zaharrek parte hartu dezakete. Partaide kopurua mugatua denez, izena emateko 639 400 786 telefonora deitu behar da.

Atxondoko elkarte gastronomiko batean lapurretan harrapatua

Eguazten goizaldean Ertzaintzak 36 urteko gizon bat atxilotu zuen Atxondoko elkarte gastronomiko batean. Lapurretan ibili zitezkeela sumatuta, auzokide batek Ertzaintzara deitu zuen. Atea eta zerraila manipulatu zeuden. Ustezko lapurra barruan harrapatu zuten, jantxo-kiko banku baten azpian ezkutatuta.

Bonbardaketaren datu berriak Viñasen eskutik

Angel Viñas ikertzaileak Gernikako eta Durangoko bombardaketen inguruko dokumentu berriak ezagutzera emango ditu, gaur, 19:00etan, San Agustin kulturguneko berbaldean. Berlingo unibertsitateko irakasle Stefanie Schüler-Springorumekin aurkitutako dokumentuak dira.

1990eko hamarkadara bueltatzeko gonbidapena egin du Intxaurre Elkarteak

Biharko, 1990eko hamarkadan girotutako jaia antolatu du Intxaurre Elkarteak. Hamarkada hartako janzkeraz moztortuta, egitaraua 12:00etan hasiko dute, 90eko hamarkadaren inguruko hitzaldiagaz. 15:00ak aldera, kupelak zabaldu eta bazkaritarako batuko dira eta arratsalde-iluntzean giroa egongo da: tribiala, herri olinpiadak, moztorro lehiaketa eta garai hartako musika taldeen playbackak izango dituzte.

> GARAI**“Herrian sustraitutako usadio eta jaiak ezagutzera emateko”**

Joan zen barikuan liburu berria aurkeztu zuten Garain; 45 lagunek parte hartu zuten ekitaldian

> MARKEL ONAINDIA

45 lagunek parte hartu zuten joan zen barikuan Garaiko Otea-Loran elkartearen egindako liburu aurkezpenean. *Garai: ohi-turak, dantzak eta jaiak* izeneko liburua argitaratu du Otea-Loran elkarteak, “herrian sustraitutako usadio eta jaiak ezagutzera emateko”. 2009an hasi ziren egitasmoa lantzen, eta orain ikusi du argia.

Gerediaga elkarteak Txelu Angoitiak koordinatu du lana. Berak ateratako argazkiak, Usune Martinezen testuak, Iñaki

Iriartek egindako ikerketa sakona eta Jon Gaminderen dokumental bat batzen ditu. Dagoeneko salgai dago liburudendetan, eta barikuko aurkezpenean doan eskuratu ahal izan zuten Otea-Loran elkarteak bazkide zein garaitarrek.

Liburuan parte hartu dutenek barikuan azaldu zuten emaitza. Bultzatzaileek esan dute aurkezpene ondo atera zela, “jende pilo batuzen”. Garaiko eta ingurueta-ko jendea egon zen bertan, baita Barakaldoko Laguntasuna dantza taldekoak ere.



Liburuaren egileak goian, aurkezpene egin ostean, Garain. Behean, liburuan argitaratutako argazki zahar bat.

> IZURTZA**Artileagaz puntua egiten ikasiko dute jubilatuenen**

Eguenetako Klubaren ekintza berria izango da

> J.D.

Jubilatuak etxeko Eguenetako Klubaren hurrengo ikastaroak artileagaz puntua egiten ikasteko aukera eskainiko du. Jubilatuek euren proposatutako ikastaroa da. Aspaldian galtzen ari den ohitura dela-eta, horretan artistak diren jubilatutako bik gainerakoei erakutsiko diete maiztean.

Iazko azaroan hasi zirenetik ikastaro asko gauzatu dituzte. Oraintsu amaitu da kandelen gainekoa, eta finantzatzeko jailetan errifak saldu zituzten. Aurrerantzean ere antzeko ekimenak prestatuko dituztela adierazi du Cristina Mora Bitano kultur elkarteak kide eta Eguenetako Klubeko sustatzaileetako batek.

> MALLABIA**Tren batek istripua izan du lur-jausi baten ondorioz**

Zapatu goizean gertatu zen istripua Mallabia eta Zaldibar artean, eta ez zen zauriturik izan

Azken egunetan Durangaldean izandako euriteek lur-jausia eragin zuten joan zen zapatuan Euskotreneko Bilbo-Donostia ibilbidean, Mallabia parean. Luizia trenbidera jausi eta gero, bertatik zihoan tren batek talka egin zuen lur-jausiaren kontra, 10:30 inguruan, 42,350

Treanean zihoazen 40 bidaiariarentzako eta tren gidariarentzako autobusa jarri zuen Euskotrenek

km-an Euskotrenek jakinarazi duenez. Ez zen zauriturik izan gertaeraren ondorioz. Trena berriro eroan zuten Ermua, eta han, trenean zihoazen 40 bidaiariarentzako eta tren gidariarentzako autobusa jarri zuen Euskotrenek. Ermua eta Zaldibar arteko trenen joan-etorria eten egin zuten, eta horren ordez, autobusa jarri zuten ibilbide hori egin gura zuten gainerako bidaiariarentzat.

Gertatutakoa konpondu eta jausitako lurra erretiratu ondoren, domekan berriro abiatu zuten tren zerbitzua Ermua eta Mallabia artean.

A. Urreta podólogo

- Oinetako patologiak
- Neurri egindako plantillak
- Oinetako beste hainbat gaitz

IMQ AEGON SERSANET SANITAS

Herriko gudarien, 10 behea
48200 DURANGO
Tel./Faxa: 94 621 54 04

Ainara Urreta Jainaga

Hurrengo eraikuntza

DURANGO

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK
Bixente Kapanaga 19, behea - 94 681 66 73 - Iurreta
www.zarateyelexpe.com

Elorrioren ere aukera onak

Errike
Liburudenda

Kalebarria z/g - Durango
Tel.: 94 620 18 93
Faxa: 94 681 64 03

61 enpresa berri sortu dira 2012an Durangaldean, Behargintzaren aholkularitza zerbitzuaren bidez

Gehienak gazteak izan dira, 25 eta 45 urte bitartekoak, Lanbide Heziketako edo unibertsitateko ikasketadunak



Augusto Uriarte Behargintzako zuzendaria, Maria Jesus Ormaetxea teknikaria eta Oskar Zarrabeitia Amankomunazgoko presidentea, atzo emandako prentsaurrekoan.

> JONE GUENETXEA

Enpresa berri bat martxan jarri gura duen ekintzaile batek buruhaustez betetako bide luze bati jarraitu behar izaten dio bere jardura hasi aurretik. Ibilbide horretan aholkularitza eta babesa eskaintzen du Durangaldeko Behargintzak. Iazko datuen berri eman dute Oskar Zarrabeitia Durangaldeko Amankomunazgoko presidentea, Augusto Uriarte Behargintzako zuzendaria eta Maria Jesus Ormaetxea teknikaria.

2012an, 164 laguni eman zieten aholku. Horietatik 81 gizonen ziren, eta 78 emakumeak. Guztira, 61 enpresa berri jarri zituzten martxan, eta 97 lanpostu sortu dituzte. Ahol-

kularitzak zein enpresak sortzeko zerbitzuak 2011. urtean baino pertsona gehiago lagundu zituzten. Orain dela urte bi, 146 laguni eman zieten aholku eta 58 enpresa berri sortu zituzten. Zarrabeitiak dioenez, "dauzkagun datuak ikusita, balorazio oso positiboa da zenbat enpresa txiki sortu diren kon-

Oskar Zarrabeitia:
"Egoera zail honetan ekintzaileak dira enplegua sortzen dutenak"

tuan hartzen badugu". Gaineratu duenez, "pertsona horiei guztiei aurpegia jartzea erraza izan daiteke, hainbatean, batzuk geure ezagunak edo herrikoak direlako". Zailtasun ekonomikoak jositako egoera honetan, proiektu berriak martxan jartzeko gogotsu daude batzuk, eta Zarrabeitiak dioenez, Behargintzan, horrelako proiektuak aurrera ateratzeko laguntzeko prest daude: "Egoera zail honetan, langabezia-tasaren joera gora doala ikusita, ezin ahaztu ekintzaileak direla enplegua sortzen dutenak. Administrazioetik enpresa sortu, hazi eta garatzea ahalbidetuko duten baldintza ekonomikoak sortzen saiatuko gara enplegua berreskuratu ahal izateko, hortxe baitago gakoa."

Enpresa berriak

Durangarrak izan ziren zerbitzua gehien erabili zutenak, guztira 71 lagun (%43). Abadiño izan zen bigarren, 17 ekintzaileekin; Elorriok 12 ekintzaile izan zituen; Zaldibarrek 3 eta Atxondok 2. Gainerakoak, Durangaldetik kanpoko herrie-

tatik etorri ziren.

Behargintzara jo dutenen %46 lanean zebiltzan, eta autonomo moduan enpresa sortzeko informazio bila jo zuten Behargintzara. Gainerakoak langabezia egoeran zeuden.

Adinari dagokionez, ekintzaileen profila oso gaztea da, Lanbide Heziketa ikasketadunak edota unibertsitateko ikasleak, 25 eta 45 urte bitartekoak eta teknologia berriak erabiltzen dituztenak.

Ekintzaileek gehien aukeratu zuten izaera juridikoa autonomoarena izan zen (51 lagun). Bost enpresa sozietate mugatu moduan sortu zituzten, lau ondasun erkidego erara, eta kooperatiba bat ere eratu zuten. Sektoreari dagokionez, 61 enpresetatik 21 merkataritza-koak izan ziren, 16 pertsonen zerbitzuak eskaintzera bideratutakoak, eta beste 16 enpresei zerbitzuak eskaintzeko. Ostalaritzan diharduten enpresak, berriz, 4 izan ziren eta eraikuntza, nekazaritza, garraio eta artisautza sektoreetako enpresa bana eratu ziren.

EKINTZAILEAK 2012

- 164 laguni eman diete aholku
- 61 enpresa berri jarri dituzte martxan
- 97 lanpostu sortu dituzte
- Erabiltzaileen jatorria:
 - Durango: 71
 - Abadiño: 17
 - Elorrio: 12
 - Iurreta: 7
 - Mañaria: 3
 - Zaldibar: 3
 - Atxondo: 2
- Enpresa motak:
 - Autonomoak: 51
 - Sozietate Mugatuak: 5
 - Ondasun erkidegoak: 4
 - Kooperatibak: 1



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Behargintzak lagundutako zazpi enpresen esperientziak

Enpresak ez dira zenbaki hutsak. Izen eta abizenak dituzten ekintzaileen ilusioak dira. Krisi sasoi honetan, lanean euren kontura aritzea erronka moduan hartu dute. Ilea-paindegiak, tabernak, arropa dendak, aholkularitza bulegoak, janari dendak eta beste hainbat jarduera abiatu dituzte honako ekintzaile hauek. Dirulaguntza gehienek behera egitea oztopo handia izan dela diote denek. Egoera horretan, Behargintzaren babesa eskertu dute guztiek.

“Nazioarteko merkatuetara heltzea dugu helburu”



Lander Balza, Asier Alburquerque eta Saioa Revilla
Minigotes.com

MINigotes.com PaperToys edo paperezko panpinen diseinurako estudioa da. Interneten denda zabaldu dute. 2012ko urrian enpresari alta eman zioten arren, urtarrilean ekin diote ekoizpenari. Bizkaia Creaktiva saria irabaztea izan da orain arte izan duten lorpenik handiena: “Bilboko Creativity Meeting Pointerako Meeti robotaren Papertoya egiteko aukera sortu zitzaigun”. Enpresa batek ematen dituen lehenengo pausoak zailak izaten direla aitortu arren, nazioarteko merkatuetara heldu gura dutela diote.



Joana Zuriturrisa eta Imanol Iturriagaetxebarria
Keiran taberna

“Behargintzak babes psikologiko eta morala eman digu”

Ostalaritza arloan murgildu ziren 2012ko uztailean, Traña-Matienan Keiran irlandar taberna zabaldu. Denbora honetan gainditu beharreko zailtasun nagusia finantziarioa izan dela azaldu dute: “Administrazioak ez du laguntzarik ematen”. Hala ere, Behargintzak salmentak handitzeko eta bezeroak erakartzeko aholkuak eman dizkiele diote: “Dirulaguntza barik, krisiaren momentu zailenetan enpresa bat martxan jartzeko behar genuen babes moral eta psikologikoa eman digu Behargintzak”.



Bea García
Ileapaindegia

“Ileapaindegiko bezeroak mantentzea lorpen handia izan da”

Bea Garciak ileapaindegia zabaldu zuen 2012ko maiatzean. Errentan hartu zuen negozioa, eta izan duen lorpen handiena bezeroak mantentzea izan dela aitortu du. Dirulaguntzak asko murriztu dituztela kritikatu du Garciak: “Ekimen bat martxan jartzekoan dirulaguntzen falta igartzen da, batez ere, inbertsioren bat egin behar bada”. Durangaldeko Behargintzatik jasotako laguntzagaz pozik agertu da ileapaindegia. “Eman behar nituen lehenengo pausoak azaldu zizkidaten”.



Soraya Mora
Asesoria Landako

“Ekintzaile baten arazo nagusia finantziarioa da”

Kontabilitate fiskal eta laborean aholkularitza emateaz gain, Soraya Moraren enpresan informatika zerbitzua eskaintzen dute. 2012ko urtarrilean zabaldu zuten enpresa Elkartegian. Ekintzaile baten arazo nagusia finantziarioa dela azaldu du Morak. “Gaur egun, bankura joan eta finantziarioa topatzea da zailena, eta honi gehitu behar zaio hornitzaile gehienek aurretiaz ordaintzea eskatzen dizutela”. Prezioak doitzeaz gain, krisiari aurre egiteko berrikuntza garrantzitsuena dela dio Morak.



Idoia Gandiaga
Prokuradorea

“Eman beharreko pausoak oso ondo azaldu zizkidaten”

Bizkaiko Auzitegietako prokuradorea da Idoia Gandiaga 2012ko azarotik. Urteetan bankuen arloan lan egin eta gero, arlo juridikoari berriro ere heltzea betegarria zaiola azaldu du. Ekimena martxan jartzekoan, zalantza asko sortu zitzaizkiola gogoratu du Gandiagak: “Eman behar nituen pausoak oso ondo azaldu zizkidaten Behargintzan: zer dirulaguntza jaso nitzakeen eta zer pauso eman behar nituen”. Enpresa martxan jartzea erabakitzean, dirulaguntzen falta igartzen dela dio prokuradorea.



Laura Prado
El oso mimoso

“Behargintzan babes handia aurkitu dut”

Umeentzako arropa denda bat zabaldu du Laura Pradok Durangon. Durangaldeko umeak janztea eta bere produktuak harrera ona edukitzea izan da Pradori poztasun handiena eman diona denda zabaldu duenetik. El oso Mimosoko dendariak aitortu duenez, laguntza azkarragoen eta dirulaguntzen falta igarri du administrazioaren aldetik. Behargintzan, berriz, babes handia aurkitu du: “Eskerrik asko Maria Jesus Ormaetxeari, bere inplikazioarengatik eta eman didan laguntzagatik”.



Nagore Olmo eta Mohamed Reda
Goxo Gourmet

“Gure produktuak dastatzen dituztenek errepikatu egiten dute”

Kalitatezko produktuen elikadura denda zabaldu dute Mohamed Redak eta Nagore Olmok. Aurrez prestatutako jakiak eta delikatesen produktuak saltzen dituzte, besteak beste. Hasierak zailak direla esan arren, euren produktuak probatzen dituztenek errepikatu egiten dute. Norberaren lanaren jabe izateak ere betetzen duela dio Redak. Negozioa martxan jartzeko jarraitu beharreko burokrasia izan ei da zailena: “Ezagutzen ez genituen gai askotan Behargintzak zalantza asko argitu dizkigu”.

▶ Berbaz

ASCENSION BADIOLA | Ekonomialaria eta historialaria | ‘Martina la Guerrillera’ bere hirugarren nobela da



“Ez da ezagutzera eman, baina gerra hartan emakume ugari parte hartu zuen”

Berrizen jaio zen Martina Ibaibarriaga, 1788an. Gaztetan, Napoleonen aldeko soldaduek bere aita eta neba hil zituzten. Gerrara joan zen orduan, eta soldaduak gidatu zituen Gasteizko batailan. Beragan oinarrituta ‘Martina la Guerrillera’ nobela idatzi du Ascension Badiolak.

►AMAIA UGALDE

Zelan eduki zenuen Martina Ibaibarriagaren berri?

Ekainean Gasteizko batailaren bigarren mendeurrena dela-eta, istorio baten bila nengibilen, eta editoreak esan zidan ea ezagutzen nuen Martina. Hasieran pentsatzen nuen Angela Telleriari buruz berba egiten zebilela. Durangarra zen Angela Telleria, eta frantsesen preso batzuei ihes egiten lagundu zien. Harekin nahastu nuen. Gero, *Martina Guerrillera*ren biografia txiki bat topatu nuen *Vascos contra Napoleon* liburuan, beste pertsonaia batzuen artean.

Eta erakarri egin zintuen...

Imajinatu, garai hartan, Gasteizko batailan 50 gizon bere kargu eduki zituen! Harrituta geratu nintzen horrekin.

20 urte gazaldatu zitzaion bizitza Martinari...

Bai. Orduan Bilbon zen Martinaren familia, Zazpi Kaleetan. Berrizen jaio zen, bai, baina herri herri ibili ziren Bilbon amaitu arte. 1808an, frantsesek hiria hartu zutenean, bere aita eta neba hil zituzten familieren botikan, eta Martinak men-

“

Gerrillara joateko aitaren eta nebaren heriotzak zerikusia izan behar zuela pentsatu nuen; fikzioan hiltzailearen aurpegia ikusten du”

“

Gasteizko batailan gizon baten izena eman zuen, armadako soldata kobratzeko”

dira jo zuen, gerrillara. Horrela hasi zen bere abentura. Gero, espainiar armadan ibili zen, eta teniente koronelaren gradua hartu zuen.

Orduan, mendeku goseagatik sartu zen gerrillara?

Ez ditugu ezagutzen benetako arrazoiak, baina nik horrela interpretatu dut. Zelan irten zen gazte hura etxetik betirako mendira? Bere familia goi-mailakoa zen, eta bizimodu nahiko eroso zeukan... Aitaren eta nebaren heriotzak zerikusia izan behar zuela pentsatu nuen. Fikzioan, hiltzailearen aurpegia ikusten du Martinak, eta haren atzetik joaten da bengantza hartzeko.

Dokumentazio lanean informazio oso gutxi topatu duzula adierazi izan duzu.

Benetan, ez dago ia-ia ezer. Une honetan doktorego-tesia egiten nabil kartzelei eta kontzentrazio esparruei buruz, eta horregatik, banekien Segoviako artxiboetan militarrei buruzko espediente pertsonalak zeudela. Hara idatzi nuen galdezka, eta ez dago Martinari buruzko ezer. Beste izen bat ere eman nien, Manuel Martinez, bere ezizena. Gasteiz-

ko batailan Espainiako armadan ibili zenean, gizon baten izena eman behar izan zuen soldata kobratzeko. Izen harekin ere ez zuten ezer topatu Segovian. Azkenean, Bizkaiko Foru Aldundiko artxiboan espediente bi topatu nituen. Bat, Martinaren ahizparen gainekoa da, Madalenarena. Frantsesek harrapatu zuten, galdeketa egin eta Martina non zegoen jakiteko, eta kartzelan egon zen egun batzutan. Beste espedientea Belar gerrillariari buruzkoa da. Gerrillan Martinaren buru izan zen. Informazio horri tira eginda eta irudimena erabiltuta osatu dut nobela.

Hasieratik emakume bezala ibili zen soldadu?

Hainbat interpretazio topatu ditut. Batzuek diote gizon moduan joan zela, eta beste batzuek ezetz. Nik bertsio biak erabili ditut. Hasiera batean, beste gizonekin joateko, bere nebaren arropak hartu zituela. Baina, zenbat egunean ibili zaitezke horrela, besteek jakin barik? Denbora gutxira, harrapatu egin zuten. Horrela kontatu zuen bere iloba batek Madrilgo egunkari batean. Ez dakigu kondaira den edo ez. Ez da ezagutzera eman, baina ge-

rra hartan emakume ugari parte hartu zuen. Gasteizko batailan hainbat egon ziren. Batzuk bikotekideagaz joan ziren, prostitutak ere bazeuden... Gerrillari moduan ez horrenbeste, baina egon egon ziren.

Zelan batu dituzu egiazko datuak eta fikzioa?

Lehenengo pertsonan idatzi dut nobela, Martinaren barruan sartuta. Historiako datuak ahalik eta zehaztasun handienagaz zaintzen saiatu naiz. Berari buruzko informazio asko ez dut topatu, baina bai berekin egon ziren gerrillarien dokumentazioa, kide izan zen Division Iberiako... Bibliografia potoloa dago. Gero abenturak eta maitasun istorioak nik ipini ditut. Amodiozko istorio bi agertzen dira: bat, benetakoa, bere senarragaz eduki zuena, eta bestea fikziozkoa.

Liburuaren aurkezpenean, emakumeek gerran izan duten papera aldarrikatzeko gogoaz azaldu zenuen.

Emakumeen papera, baina ez gerran bakarrik. Emakumeen lana garrantzitsua izan da eta historiako liburuetan ez dira inoiz agertzen, erreginak ez badira.



SEI HANKAKO MAHAIA
JUANJO GASTAÑAZATORRE

PP


Aurrekontuak airean

Urkullu lehendakaria eta haren gobernua ez dira aurrekontuak onartzeko arazoak dituzten bakarrik. Zoritxarrez, Durangoko EAJk ere, udalaren buruak, iazko kontuak luzatzeko asmoa du 2013 honetan. Hain zuzen, 2011ko kontuetatik luzatutako aurrekontu bera.

Aurrekontuak oinarrizko tresna dira edozein gobernu berdin maila nazionalen, autonomikoan, foralean zein udal mailan bere politikak ezartzeko eta egitasmoak burutzeko. Gure udalari dagokionez, bistakoa da EAJ ez dela kapaz bere proiektu ekonomikoa aprobetxatzeko, eta orain ere, hala beharrez bultzatu gaituzte aurrekontuak berriro luzatzera.

Oposizioko gainerako taldeekin alderatuta, Alderdi Popularrak garaiz eta behar bezala bidali ditu zuzenketa partzialak, eta oinarrizko helburu batzuk lortzeko funtsezkoak direla uste dugu, hala nola enplegua sortzeko, tokiko ekonomia bultzatzeko eta krisialdiak gehien eragin dien pertsonen eta behar gehien duten laguntzeko.

Hamar zuzenketa aurkeztu ditugu, eta guztira, 400.000 euroko balioa dute. Esate baterako, haurreskola edota zergak eta tributuoak ordaintzeko dirulaguntzak proposatzen ditugu. Eta gainera, partidak bideratuko genituzke enprekin kontratuak errazteko eta sustatzeko, baita enplegu-planak eta komertzioa bultzatzeko diru kopuru jakin bat ere.

Argi dago gobernu taldearen proiektua hobetzeko proposamenak direla. Gure harri kokkorra jarri nahi dugu, Durango krisialditik irtenen lehenengo udalerrria izan dadin. Baina jakina, ikusiko dugu ea EAJ gai den kontuak onartzeko, edota horren ordez, aurrekontuak hirugarrenez luzatzen dituen.

*Erredakzioan itzulia

Bide-segurtasunari buruzko Euskaltel Euskadiko txirrindularien gutuna

(...) Honako proposamen hau egin gura dugu, betiere, asmo bakarrarekin: gizarte honetako inork ez dezala bizi trafiko-istripu baten ondoriozko tragediarik. Behar baino lehenago joan eta pedalei eraginez zerurako bidea hartu duten guztien oroimenez, Euskaltel Euskadiko txirrindulariek neurri batzuk proposatzen ditugu.

Gomendioak baino ez dira, jakina, baina benetako borondatea egonez gero, berehala eta zuzenean aplikatu daitezke, eta batzuek, gainera, ez dakarte aparteko zailtasunik. (...)

- Sentsibilizazioa: komunikabideetan sentsibilizazio kanpainak sustatzea gustatuko litzaziguke. Gure alboan 1,5 m-ko tartea utzi beharra azpimarratzea, baita bidean urrakorra goak garela ere.

- Seinalizazioa: seinalizazio espezifikoa eta errepikakorra ikusi nahi dugu errepideetan, hots, txirrindularien igarobideak markatzeko seinaleak ezartzea, eta ehunka kilometro errepika daitezela, gidariek gogoan izan gaitzaten. Horrez gain, eremu horiek espezifikoki zaintzen direla nabarmen-tzea, bai eta errespeturik ez duten gidariak zigortu egingo direla ere.

- Gunerik arriskutsuenak identifikatzea: gunerik arriskutsuenak argi eta garbi identifikatzea nahiko genuke, eta gune horietan neurriak hartzea, esaterako, tarte horietako abiadura murriztea edo bizikletetarako errei alternatiboak ezartzea.

- Abiadura murriztea: asteburuetan abiadura-mugak ezartzea gustatuko litzaziguke, asteburuetan baitago txirrindulari gehien errepideetan. Oro har, herrigune barruko zein kanpoko bideetan azkar ibiltzen dira ibilgailuak, baina asteburuetan, mugak are gehiago murriztu beharko lirateke. Horretaz aparte, asteburuetan autobideetako bidesariak merkatu

beharko lituzkete, kamioi eta pisu handiko ibilgailuen joan-etorriak horietatik egiteko.

- Garbitasuna: bide bazterrak garbitu beharko lituzkete. Eta puntu hori berebizikoa da, hartara, horietatik ibili ahal izan-do dugulako, gurpilik zulatu gabe.

- Zabalguneak: aukera ematen duten zonetan, eta txirrindulari ugari dabilzan eremuetan horrelakoak ipintzea.

- Errepidean marra bat egin daiteke, txirrindulariaren muga markatzeko, edota errei hori egokitzeke.

- Idealea, baina, bidegorri gehiago egotea da, bai herri barruan, bai herritik kanpo. Etorkizunari begira, neurri hori hartu beharko litzateke.

- Zaintza eta segimendua, txirrindulariekiko errespetua lortzeko. Sakelako telefonoen edo alkoholemiako kontrolak egiten diren modu bertsuan, txirrindulariekiko errespetua zaintzeko kontrolak ere egitea.

- Lehenetsuna: txirrindulariok lehenetsuna izan beharko genuke biribilguneetan. Apenas dute gurekiko errespetua, eta biribilgune batzuk gurutzatzea oso arriskutsua izaten da.

- Bizkortzeko eta astirotzeko erreiak oso arriskutsuak dira txirrindulariontzat, kotxeak parean gurutzatzen zaizkigulako.

- Sarritan, tunelek argiztapen eskasa dute, edo bat-batean bidea estutu egiten da; beraz, errepide erdialdera jo behar izaten dugu.

- Istripuak egoteko edo harrapatzeko arriskua dagoen, gure ustez, lehenbizi txirrindularien eskubidea murrizten dute, gidariena murriztu beharrean. (...)

Espero dugu proposamen hauek kontuan hartzea eta baloratzea, guztion artean eta guztion onerako, errepidea leku seguruagoa izan dadin. Eta nola ez, gure harri-koskorra ekarriko dugu, badakigulako geuk ere badugula erantzukizunaren zati bat. Bada ordua zerbait egiteko eta errespetua eskatzeko.

Euskaltel Euskadiko Txirrindulariak

ziatu arte luzatzen zen. Azkenengo lan erreformen ondorioz, 2013ko uztailaren 7rako adostu gabeko lan hitzarmenak desagertuko dira, eta enpresak eskumena izango du sektoreko estatuko lan hitzarmena aplikatzeko, eta halakorik ez badago, Langileen Estatutuak zehazten dituen gutxienekoak (9.000 euroko soldata, 1826 lanordu...) ezarri ahal izango lituzkete.

Lan erreformen oinarrizko helburua, babes soziala ezabatzea gandi, lan mundua ahalik eta gehien desarautzea da, eta tokian tokiko lan hitzarmen desageritzea bide horietatik doa, hots, gutxieneko batzuk ezarriko dituen aterki bat jarri (estatu mailako hitzarmenak), berdin Extremadurako zein Euskal Herriko langileentzako, eta gainontzean "oihane-ko legea" ezarri.

Arazoa larria eta denona da, soldatapeko zein autonomo zein enpresari txiki... Lan merkatuaren desarautzeak enpresa handiei egiten die mesede soilik. Beste guztioi, miseria besterik ez dakarkigu.

Defenda ditzagun gure hitzarmenak eta negoziazio eremua!

Durangaldeko LAB sindikatua

Arrisku larrian

Hego Euskal Herriko negoziazio kolektiboa galtzeko arriskuan dugula diogunean, inork gutxi ulertuko du zertaz ari garen. Aldiz, esaten baldin badugu, laster erremediorik jarri ezean, beste eremu batean, estatukoan alegia, negoziatu eta hitzartutako lan hitzarmenak arautuko dituztela euskaldunon lan baldintzak, argiago geratzen da. Esan gabe doa Madrilen negoziatutako lan hitzarmen orok lanordu gehiago, soldata baxuagoak, baldintza txarragoak... jaso dituela.

Badira azken lan erreformetako hainbat atal, esaterako gizarteratzea, lortu ditugunak, eta egun jendartearen arduren zutabe eta oinarri bilakatu direnak (osasun eta hezkuntza arloko murrizketak, babes sozialaren aurkako erabakiak, pensioen ez eguneratzeak...). Jendartearen kontzientzia-hartze horrek aipatu erreforma horien aurkako greba orokor, protesta eta mugimendu desberdinak sortu ditu, mezua behar bezala, edo hainbestean behintzat, helarazi delarik gizarteko atal eta maila guztietara.

Ez daukagu horren argi, baina, helburu bera lortu dugunik Euskal Herriko negoziazio kolektiboriari dagokionean. Orain arte, lan hitzarmenaren iraupena beste berri bat nego-

Laguntzaileak:


anboto
komunikabideak

Bixente Kapanaga, 9
48215-Iurreta
(Bizkaia)
Tel.: 94 681 65 58
Erredakzioa:
94 623 25 23
Publizitatea:
94 621 79 02
publi@anboto.org

2013ko apirilaren 12a
11. urtea - 496. alea

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.
Erredakzio burua:
Joseba Derteano.
Administrazio burua:
Itziar Belar.
Administrazioa: Miren Abasolo.
Publizitatea: Goretti Alonso, Amaia Huarte, Itxaso Altuna.
Erredakzioa: Aitziber Basauri, Itsaso Esteban, Markel Onaindia eta Amaia Ugalde.
Maketazioa:
Ainhoa Arizmendiarieta.
Zuzentzailea: Goiatz Etxeita.
Argazkilaria: Kepa Aginako, Zalaoa Fuertes.

> MUSIKA



“Oso eroso sentitu izan naiz beti jendearen aitzinean: zuzenean”

Durangoko Plateruenean joko du Anje Duhalde lapurtarrak, 22:30ean, gaur. Berrogei urteko musika ibilbideko kantak eskainiko ditu: iaz, ‘Ibilean’ diskoan kaleratu zituenak. Etxek jardungo du aurretik

> **ITSASO ESTEBAN**

Zer prestatu duzue Platerueneko gaurko kontzerturako?

Iaz kaleratu nuen *Ibilean* disko berriko kantak gabiltza kontzertuetan eskaintzen. Disko horretan oinarritzen gara, baina, erreperitorioa moldatu egiten dugu: “zaharberituriko” hainbat kanta joko ditugu Durangon ere. Ene bizitzan ehundik gora kanta grabatu ditut, eta horietatik oso gutxi eskaini ditut zuzenean: hori guztia berrikusten ari naiz.

Zer ikuspuntutik zaharberritu dituzue kantak?

Batetik, moldaketei dagoekienean dago berritasuna, eta bestetik, kantei beste interpretazio molde bat ere eman diegu: kanta batzuk oso akustiko grabatu ge-

nituen, eta horiek molde elektrikoagoan joko ditugu. Dena aldatzen du horrek.

‘Ibilian’ zuzeneko bat grabatuta egin duzun laugarren diskoa da. Zergatik duzu formatu hori hain gustuko?

Ez naiz oso eroso sentitzen estudio batean, baina derrigor pasatu behar da hortik. Aldiz, oso eroso sentitu izan naiz beti jendearen aitzinean, zuzenean. Horixe da beste kantariengan gustatzen

“

Jendearen aurrean kantatzea da gure funtzioa: “Zer nintzateke ni publikoan kantatuko ez banu?”

zaidana: zuzeneko disko batean agertzen da kantariaren bizitasuna. Jendearen aurrean kantatzea da gure funtzioa. Beti esan izan dut: “Zer nintzateke ni publikoan kantatuko ez banu?”.

Presio edo urduritasun bereziagaz bizi dira zuzeneko horiek? Lehenengoan izaten da urduritasun handiena, baina, kontzertu guztiek daukate saihestu ezinezko presio bat: kantariaren batek esana da, hori galtzen duzuean

arima galdu duzula. Eta arrazoi osoa daukala uste dut.

Zuk bezala esperientzia zabaldu edukitzeak ez du urduritasun hori kentzen, beraz.

Esperientziak ematen duena, segurtasuna da, batez ere. Bestalde, eragin handia dauka une bakoitzean zelan zauden, zer giro sortzen den... Horiek ezin daitezke aurrez menderatu. Horrek eman diezaioke xarma kontzertu bati, edo bilaka dezake “katastrofiko”. Aldiro gauza berria da kontzertu bat.

Ez da Platerueneko zure lehenen aldia. Zer oroitzapen daukazu aurreko kontzertuez?

Hiruzpalau aldiz eskaini dit kontzertua Plateruenean. Azken, aurreko Korrika Kulturaren barruan egin genuela uste dut... Eta oso oroitzapen polita daukat: giro ona sortu zen. Espero dut gaur ere horrela izatea!

Egongo dira kanta batzuk jo bari ezin zarena joan, ezta?

Bai, badira kanta batzuk: ez badi-tut jotzen “moskeatu” egiten da jendea! (barrez).

Kanta horiekiko nekerik?

Batzuk gorroto ditut! (barrez). Baina egia da jendearen aurrean hori guztia ahazten duzula: ez naiz sekula akomplexatua izan kanta bat eskatu didatelako jotzean. Etxera natorrenean edo entseguetan esaten dut: “Gorroto dut kanta hau!”.

40 urteko perspektibatik, zelan ikusten duzu gure eszena?

Teknika, baldintza eta egitura aldetik, asko hobetu dira gauzak. Egoera sozialari lotuta, baina, kultura da lehena beti krisiaren ondorioak pagatzen. Gure agintari politikoek hala ikusten ez duten arren, hain justu, kultura da behar duguna.


John Hiatt musikariaren bertsio bi ere egingo ditu

John Hiatt musikariaren kanta biren bertsioak ere jaso ditu Anje Duhalde kantariak *Ibilean* diskoan.

Kantari horri buruz ere egin digu berba: “Kantautore amerikar oso ona da, bai doinuei bai letrei dagokienez. Azken urte eta erdi honetan bi aldiz entzun dut zuzenean, eta oso gogoko dut. Gertatzen dena da, hemen, Bruce Springsteen ezagutzen dugula eta John Hiatt ez. Nire poza izango litzateke bertsio horien bitartez jendeari John Hiatt ezagutaraz-

tea: jakinmina piztea”, azpimarratu du Anje Duhaldek.

Musika sorkuntzan zein momentutan dagoen galdetuta, “izan ditut une oparagoak”, erantzun digu: “Gauzak egin, egin, eta egin, eta momentu batean konturatzen zara hori aurretik ere eginda zeneukala”. Hala ere, “saiatzen” dabil Anje Duhalde beti: “Zerbait egin nahiez”: euskarri berriei dagokienez gogoetan, zalantzan.. Zerbait adierazteko beharri- na duenean heltzen dio gitarrari, eta sortzen du.



“

Kanta batzuk oso akustiko grabatu genituen, eta horiek molde elektrikoagoan joko ditugu”

> ARGAZKIGINTZA

Geu Be elkarteko en erretratuak, Javier Fernandez eskutik

'Benetako berbak' du izena Fernandezek Abadiñon ipini duen erakusketak

> ITSASO ESTEBAN

Javier Fernandez argazkilari abadiñarraren lana biltzen du astelehenean Traña-Matienako Errota kultur etxean zabaldu zuten erakusketak. *Benetako berbak* du izena Abadiñoko argazkilariaren proiektuak, eta

Guztira, 75 erretratu dira erakusketakoak. Testu batek lagunduta helarazten digu egileak irudi bakoitza

Geu Be elkarteagaz urtebeteen egindako lana islatzen du.

Durangaldeko beharizan bereziko familiek osatutako Geu Be elkartearen hamargarren urteurrenaren harira ipini zuen martxan ekimena Fernandezek, eta elkarte horren

inguruko lagunak dira protagonistak. Guztira, 75 erretratu dira erakusketan bildutakoak. Testu batek lagunduta helarazten digu argazkia egileak, "ikuslea protagonistarengana gehiago hurreratzea" errazteko, Fernandezek berbetan.

"Hasieran, elkartearen hamargarren urteurrenaren oparia egiteko sortu zen proiektua, baina azkenean, neu izan naiz oparia jaso duena", dio Fernandezek: "Argazkiak egitera joan natzaien bakoitzean, energia karga ikaragarria jaso dut erengandik".

Javier Fernandez: "Energia karga ikaragarria jaso dut argazkiak egitera joan natzaien bakoitzean"

Errota kultur etxean hasi du *Benetako berbak* honek ibilbidea, baina maiatzeko beste hitzordu bi ere baditu Fernandezek lotuta: maiatzaren 6tik 10era, Iurretako kultur etxean egongo dira erretratuak; eta 13tik 26ra, Durangoko San Agustinen.



> ARGAZKIGINTZA

Begira jaialdian parte har dezakete argazkizaleek

Argazkizaleen erretratuaren erakusketa egingo dute

Ekain eta uztailan, hirugarren edizioa egingo du Begira Photo argazki jaialdiak, eta argazkigintzari buruzko berbal-di, tailer eta erakusketak ekarriko ditu Durangora. Hitzordu horri begira, argazkizaleei parte hartzeko gonbita luzatu die-

te Kinua elkarteko jaialdiaren antolatzaileek. Argazkizaleek bidalitako lanekin erretratuaren erakusketa bat egin gura dute Begira jaialdiaren barruan.

Jasotzen dituzten argazkien aukeraketa egingo dute antolatzaileek, eta Durangoko udaltzeko plazako Correos-en eraikinean proiektatuko dituzte ekainaren 25etik uztailaren 14ra arteko Begira Photo jaialdian.

Ekimenean parte hartu gura dutenek, info@begiraphoto.com helbidera bidali ditzakete euren argazkiak.

Parte hartu gura dutenek 'info@begiraphoto.com' helbidera bidali ditzakete euren argazkiak

> PINTURA

Durangaldeko artisten lanak Ezkurdi aretoan

Hamabost artistaren koadroak bildu dituzte

Durangaldeko Artisten Elkarteak antolatu du bertako artisten erakusketa kolektiboa. Apirilaren 14ra arte Durangoko Ezkurdi aretoan izango da erakusketa hori zabalik. Elkartearen aniztasunaren isla da bilduma: askotari-

ko estiloetako koadroak daude Ezkurdi aretoan ikusgai: impresionistak, figuratiboak zein abstraktuagoak.

Durangaldeko Artisten Elkartearen 30 eta 70 urte bitarteko hamabost kideren koadroak dira erakusketarako batu dituztenak. Jose Luis Antoñana elkartearen presidentek azaldu duenez, 45 kidek osatzen dute, egun, elkarteak.

Gonbidapena luzatu die eskualdeko artistei elkartearen izena eman dezaten: "Oso onuragarria da artistari elkarteak ematen dion babesa".

Durangaldeko Artisten Elkartearen aniztasunaren isla da bilduma: askotariko estiloetako lanak daude

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

www.plateruena.net

APIRILAK 13 22:00etan
PARRITA
Musika kontzertua. 15-18 euro.

APIRILAK 19 21:30ean
FERMIN MUGURUZA Kontraktantxa
+ ZULOAK. Kontzertua. 12-15 euro.

APIRILAK 20 21:30ean
EL DROGAS
Kontzertua + KDa. 17 euro.

Eguneko menua asteleheneetik larunbatera
Landako etorbidea, 4a 48200 Durango Tel.:946 030 300

NUESTRA SEÑORA DE LAS NUBES

El Óbolo Producciones

Apririlak 13 • 20:00

San Agustín KULTUR GUNEA
DURANGOKO LEDALA

Hemen agertu gura badozu deitu!

94 621 79 02

GEURE DURANGALDEA

LIBE MIMENZA
Kazetaria

**Hilozak**

Ez daukagu tiranoekin akabatze gogorik, ezta ausardiarik ere. Batzuek esango dute beldurra jota gaudela, shock egoeran, eta horregatik ez daukagula pentsatzeko askatasunik.

Badago pentsatzeko askatasunik gabe, adierazteko askatasunik baliorik ez duela dioenik. Horixe zioen bat hil da asteon; begiak itxi dituen beste batek, aldiz, berunezko mundua sortu zuen eta askatasun ororentzat fundizioak eraiki. Hilozak biak; prezio ezberdineko hilozak.

Beste hiloz batzuk ez ditu inork titular bihurtzen, eta idatzi beharko lirakeen epitafio asko, berriz, ez dira idazten, hilda hobe leudekeen horiek hil ez direlako oraindik. Hiltzeko lizentzia asko daude. Ez du berdin hiltzen goseak, Matxitxako parean itsaspetik atera duten gerrako obusak, finantza-presioak edo ero haizeak.

Dena den, zenbakiak ez ditu hego haizeak errotzen, itsuek ere argi dute ekua-zioa: hautsez betetako sukalde asko dago inguruan, eta hauts horiek harrotzeko familia asko kalean.

Baina betikoentzako, arazoa ez da matematika, ez etxegabetzearen auzia, ez... Arazoa eskratzea da, 300 metro tara eutsi beharreko buruhaustea. Politikoen etxetako tinbreak jotzea eskandaloa da, gazteak borra kolpeka atxilotzen jarraitzea ez, noski; bizikidetzak.

Eta espektakulu honen aurrean, zer egingo dugu?

a) Saiatuko gara sistema ustel honen suizidioa Privalian erosten.

b) Gure artilleria guztia kalera atera eta elkarrekin eraginda sistema ustel hau akabatzen ahaleginduko gara. Saiatu ezean, erosi palomitak datorren asteko zirkurako.

> LITERATURA

“Kalitate handiko poesia egin zuen Lauaxetak, irudi oso ederrak sortuaz”

Estepan Urkiaga ‘Lauaxeta’ren lana “samurrago” emateko prestatu dute *Ludi honen bestaldez* liburua

> ITSASO ESTEBAN

Zelan elkartu zarete Lauaxetaren testuen inguruan?

A.M.Aldekoa-Otalora: Orain hamar urte inguru, berriketaldi bat izan genuen Xabier Boveda eta biok, eta iazko urtarrian heldu genion berriro gaiari: Lauaxeta fusilatu zutela 75 urte bete zirela gogoan hartuta.

Zerk bultzatu zaituzte?

A.M.Aldekoa-Otalora: Oso zabaldua dago Lauaxetak euskara zaila erabiltzen zuela: goi mailako euskara zerabilen, zaila, gaurko irakurlearentzat. Gure poeta nazionalerako bat da Lauaxeta, baina gure ikasleek ez dute bere lana ezagutzen: irakurketa erraztu guran jardun dugu.

Xabier Boveda: Lauaxetaren hilketaren 75. urteurrena gogoratu gura zuen Labayru Ikastegiak ere, eta eurekin argitaratu dugu liburua. Adolfo Arejita Labayruko zuzendaria asko inplikatu da proiektuan, eta Sebastian Gartzia Euskaltzaindiko Literatura Batzordeko kideak ere lan handia egin du.

Urtebeteko lana izan da?

Alberto Errazti: Bai. Lana banatu eta aldiro-aldiro batzarrean batu gara, Durangoko liburutegian. Batzar horietan adostu ditugu lanaren irizpideak: zer forma lehenetsi, metrika zelan landu... Osotasun bat eman diogu horrela liburuari.

Zeintzuk dira lanerako zehaztu dituzuen irizpide nagusiak?

Xabier Boveda: Moldaketa bat egin dugu: Lauaxetaren lana gaurko irakurleari hurreratzea izan da helburu nagusia. Gaurko idaztarauak kontuan hartuta moldatu dugu, eta bizkaiera arautuaren moldera ekarri dugu. Askorrespetatu dugu, baina, jatorrizkoa. Poesia neurtua eta errimatua izanik, oso inportantea da neurria, eta hori ere zaindu dugu: ez dugu aldatu gura izan. Tipografiaren bidez edo oharren bidez ematen ditugu hainbat azalpen.

Neologismozalea zen Lauaxeta. Zelan landu dituzue horiek?

Alberto Errazti: Hiztegiaren eta sinonimoen bidez azaltzen dizkiogu irakurleari.

Xabier Boveda: Izan ere, idazlearen estiloa mantentzea izan da hirugarren irizpidea: neolo-

gismoak ere Lauaxetaren ekarpenaren parte direla uste dugu.

Zer olerki landu dituzue?

Alberto Errazti: *Bide barridak* eta *Arrats Beheran* liburuak, eta *Espetxeokak* laneko olerki batzuk aukeratu ditugu.

Xabier Boveda: Lehen esan dugu samurrago eman gura izan dugula Lauaxetaren poesia. Baina ez da erraza. Izan ere, lehenengo liburuaren izenburuak ere esaten du: bide berriak jorratu nahi zituen Lauaxetak. Modernismoa esaten zaiona euskal literaturara ekarri nahi izan zuen: euskal olerki berria sortu.

A.M.Aldekoa-Otalora: Hain zere berriak ekarri zituen Lauaxetak: bera bezala fusilatu zuten Garcia Lorcarekin harreman estua zeukan, esaterako. Mundu horrekin lotura zeukan, eta hori euskarara ekarri gura zuen.

Zergatik irakurri beharko genuke Lauaxetaren poesia?

Xabier Boveda: Askorentzako, eredu bat da Lauaxeta. Irakurri barik ere mitifikatua izan da, gudaria izan zelako, abertzalea, gazterik fusilatu zutelako... Hortik harago, baina, poeta ona izan zen. Gerrak guztiz zapuztu arren, oso ahalegin polita egin zuen: euskal kulturaren barruan zerbait modernoa egitea. Eta kalitate handiko poesia egin zuen, irudi oso ederrak sortuaz.

A.M.Aldekoa-Otalora: Mitoren bila dabilenak, amaieratik hasi dezake irakurketa —*Espetxeokak* ataletik— eta hortik hasi Lauaxeta deskubritzen.



Alberto Errazti, Antton Mari Aldekoa-Otalora, Xabier Boveda (argazkian), Sebastian Gartzia eta Adolfo Arejita aritu dira lanean.

> DANTZA

Break On Stage jaialdirako doako autobusa Elorriotik

Arriolara deituta edo ‘arriola@arriolaka.com’ helbidera mezua idatzita eman daiteke izena

Elorrioko Arriola kultur-guneak Bilbon antolatzen duen Break On Stage jaialdira joateko doako autobusa ipiniko dute aurten ere. Apirilaren 20an, 20:30ean hasiko da jaialdia Bilboko Miribilla auzoko Bilbao Arena kirolgunean, eta 19:00etan aterako da autobusa

Elorrioko plazatik. Arriola antzokira deituta edo *arriola@arriolaka.com* helbidera mezua bidalita eman daiteke autobuserako izena.

Kultura urbanoaren nazioarteko jaialdia da Break On Stage, eta 12. edizioa beteko du apirilaren 20ko hitzorduan.

Hip hop kulturarekin loturiko adierazpenen erakusleihozateko sortu zuten Break On Stage Elorrioren, eta azken urteetan erakarri duen ikusle kopuru handiak bultzatu ditu Bizkaiko hiriburuan areto handiagoak betetzera: 4.000 ikusle joan dira azken edizioetara.

Break Dance lehiaketaz gainera, bizikletako akrobazien, mapping-aren eta video-jockey-en erakustaldiak ere jasotzen ditu egitarauak. Gainera, CPV El Club de los Poetas Violentos espainiar rap taldeak kontzertua eskainiko du.





durango

Dendak Bai

Apirilaren 15etik 30era

%5

eko deskontua.

Ordain itzazu zure erosketak Durango Txartelarekin.






Durangotik Axperaino bizikletaz joateko ibilbidea erraza da.



Durangotik Axpera, ingurune ikusgarria bisitatzeko

Mendi bizikletaz egiteko ibilbide hau egokia da hasiberri direnentzat, eta ikuspegi natural ederra eskaintzen du

Durangoko Andra Marin hasten da BTT ibilbide hau. Teknikoki erraza da, eta horregatik da egokia hasiberrirentzat. Andra Maritik Tabirarantza jo eta Ibaizabal ikastolatik pasatuz Artasola auzorantz eman behar dira hurrengo pedalkadak. Errepide albotik doan auzobidetik Abadiñora ailegatuko da txirrindularia. Mendiarako bidea hartu eta gero, beharrezkoa da Sagastara igotzea. Sagastako bidegurutzean eskumara hartu eta Axpera jaitea izango da hurrengo lana. Atxondoko auzo ikusgarria da Axpe, ingurune natural ederrean da-

goena. Anbotoren magalean egongo da txirrindularia. Axpen, frontoi albotik Arrazolarako bidean joango da bizikletaria. Arrazolarako jo eta goraino helduta, ibilbidearen erdia egin izango du da goeneko.

Apatamonasteriora jaitsi, eta Elorriorantza joatea eskatzen du ibilbide honek. Baina, 200 metro egin eta auzobide batek Abadiñoko Gaztelurantz joango du. Gaztelu zeharkatu, eta Astolara jaitea izango da hurrengo pausoa. Handik, bidegorrian sartu eta Durangora bueltatzeko azkeneko metroak izango dira.

ZER IKUSI



Andra Mari.



Arrazola.

DISTANTZIA

30 km

IRAUPENA

2 ordu 15 min

IGOERA METATUA

493 m

ZAILTASUNA

Erraza



> PILOTA

Atxondo, Mallabia eta Iurretari Elorrio batu zaie aurten, Bizkaiko herri artekoan

Bost urteren ostean, Elorriok berriro parte hartuko du herri artekoan; Mallabiak eta Atxondok bigarren txandan ekingo diote txapelketari; Berrizek eta Durangok aurten ez parte hartzea erabaki dute



Iaz, Markinak irabazi zuen Bizkaiko Herri Arteko Txapelketa; Mallabiak kanporaketa bi gainditzen baditu, final zortzirenetan topatuko luke Markina indartsua.

> JOSEBA DERTEANO

Asteburu honetan hasiko da Bizkaiko Herri Arteko Pilota Txapelketa. Esku pilotan lau ordezkari izango ditu Durangaldeak: Iurretak eta Elorriok behe-behetik ekingo diote, eta Mallabia eta Atxondo bigarren kanporaketan sartuko dira. Zestán, Durango izango da eskualdeko ordezkari bakarra.

Urtero legez, kanporaketa sistemaren bidez eta joan-etorriko jardunaldietan jokatu du txapelketa kadete, gazte eta na-

gusi mailetan. Finalak ekainaren 6an eta 16an jokatu dituzte. Iaz txapelketan aritu ziren Berrizek eta Durangok aurten ez dute parte hartuko esku pilota txapelketan. Eta Elorriok, kontrara, berriro jokatu du, bost urteko parentesiaren ostean. Sasoi batean herri arteko hiru txapelketa irabazi zituen herriak Lekeitio izango du arerio lehen kanporaketan. Asteburuan Lekeitio jokatu dute joanekoa. Elorriok nagusietan du bikoterik indartsuena Igor Azpiri eta Jon Landaburugaz.

Iurretak Lezamari aurre egingo dio lehen kanporaketan. Nagusietan, Manex Solozabalek eta Unai Badiolak osatuko dute bikotea; gazteetan, Gorka Otadui eta Iker Larrazabalek; kadeteetan erabaki barik dute Ekaitz Anduezen laguna. Mikel Bereinkua gazteak ezingo du asteburuan jokatu eskuko minez dagoelako.

Mallabiaren nagusietako bikotea Andoni Aldapek eta Ander Martinezek osatuko dute. Behar izango balitz, Mikel Garcia ere jokatzeke moduan dago. Gazteetan

Aitor Elordiren eta kadeteetan Ioritz Gisasolaren bikoteak erabaki barik dituzte.

Atxondok nagusietako bikotea du erabaki barik. Kadeteetan Renato Nuñezek eta Dani Rodriguezek eta gazteetan Jon Bernasek eta Arkaitz Diezek jokatu dute. Rodriguez bigarren urteko infanta da, baina kadeteetan jokatuko du.

Oro har, herri denek pare bat kanporaketa gainditzea eta final zortzirenetara heltzea dute helburu, ezeri muzin egin barik.

> TXIRRINDULARITZA

Bizkaiko txapelaren bila irtengo da CAF taldea

Larrabetzun lehiatuko dute Bizkaiko Txapelketa

Domekan, Txorierriko VI. Sari Nagusia jokatu dute Larrabetzun, eta gazte mailako Bizkaiko txapelak egongo dira jokoan. Iurretako CAF Transport Engineering taldeak hautagai sendoak ditu mailaz maila. Kadeteetan Amaia Leon irabazteko fabritoen artean dago. Gazte mailan talde indartsua eroango dute eta Ziortza Isasi, Olatz Agorria zein Arantza Villa irabazteko borrokan egongo dira. Euren taldeki-

de Ainara Sanz Vazek, berriz, 'Euskal Challenge'-aren sailkapeneko lidertza hartzeko aukera handiak ditu.

Bizkaia-Durango taldeak ere parte hartuko du nagusietan, eta Bizkaiko txapelketa ez, baina lasterketa bera irabazteko aukera handiak ditu Anna Sanchis, Ane Santesteban, Dorleta Eskamendi, Lourdes Oiarbide eta Joanne Hogan txirrindularien bidez.



Ainara Sanz Vaz bigarren dago Euskal Challenge-eko sailkapenean.

> AGENDA

> FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA

Durangoko Kulturala - Bermeo
· Domekan, 11:30ean, Tabiran

OHOREZKO MAILA**Iurretako - Loiu**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

LEHENENGO ERREGIONALA (gizonak)**Berriz - Fruiz**

· Zapatuan, 17:00etan, Larrakozelain

Zaldia - Etxebarri

· Zapatuan, 16:00etan, Solobarrian

BIGARREN ERREGIONALA**Ezkurdi - Salesianos**

· Zapatuan, 18:00etan, Arripausetan

HIRUGARREN ERREGIONALA**Zaldia B - Elorrio B**

· Zapatuan, 18:15ean, Solobarrian

LEHENENGO ERREGIONALA (emakumeak)**Iurretako - Ariz**

· Zapatuan, 19:15ean, Larrakozelain

> ARETO FUTBOLA

HIRUGARREN MAILA**Mallabia - Sestao**

· Domekan, 17:00etan, Zaldibarko udal kiroldegian

EUSKAL LIGA**Sasikoa - Arabako EHU**

· Domekan, 12:00etan, Landako kiroldegian

MAILA GORENA**Sasikoa Durango B - Atxure Bakio**

· Zapatuan, 19:45ean, Landako kiroldegian

Presion Break - Astraburuko

· Zapatuan, 17:15ean, Berrizburu kiroldegian

LEHENENGO ERREGIONALA**Gu Lagunak - Arabella**

· Zapatuan, 18:30ean, Landako kiroldegian

Elorrioko Buskantza B - Beseka

· Domekan, 12:00etan, Elorrioko udal kiroldegian

> SASKIBALOA

LEHENENGO ERREGIONALA**Anbotopeko - Muskiz**

· Zapatuan, 18:00etan, Tabiran

> ERRUGBIA

EUSKAL LIGA**- Elorrio RT Parra taberna - Uribealdea**

· Zapatuan, 16:30ean, Elorrioko errugbi zelaian

> HITZALDIA

KIROL ELIKADURA**- Patxi Gimeno eta Ainhoa Lizardui**

· Hizlari biek kirol elikadurari buruz jardungo dute. Apirilaren 12an eta 19an, 19:00etan, Landako Elkarte-gian. Durangoko Sapubike taldeak antolatuta.

> ARETO FUTBOLA

Iurretako B bigarren erregionalera igo daiteke zapatuan, Mungian

Azken aurreko jardunaldian etxean partidurik galdu ez duen Larramendi bisitatuko du Iurretako Bk



Iurretako eta Kultureko gazteen taldeak eta Abadiño zein Berriztik etorritako jokalariekin talde gazte eta sendoa osatu dute.

> JOSEBA DERTEANO

Taldekako liga denboraldiak azken txanpan sartu dira, eta Durangaldeko talde asko daude edo igotzeko aukerakin, edo jaisteko arriskuan. Futbolearen eta Hirugarren erregionalen, Iurretako B izan daiteke Durangaldeko taldeen artean igoera lortzen aurrenekoa, as-

Larramendi eta Iurretako B etxeko eta etxetik kanporako talderik indartsuenak dira, hurrenez hurren

teburu honetan bertan. Horretarako baldintza bi bete behar dira: Iurretakok Larramendi menderatu behar du etxetik kanpora, eta sailkapenean puntu bira dituen San Antoniok eta Ermua Bk berdindu egin behar dute zapatuan elkarren kontra jokatu duten partiduan.

